

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 16011P-40/2016)

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesdunak: Mohamed Boubacar Mohamed eta Mint Wehbin Mohamed.

Erabaki hau ezin izan zaio jakinarazi interesdunari, ezin jakinik non bizi den. Beraz, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), iragarki hau BOEn argitaratuta –eta aldez aurretik, aukerakoa delarik, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan–, alkatetzaren 16/2228P zenbakiko ebazpenaren jakinarazpena egiten zaio. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko abuztuaren 17an, ebazpena eman zen (16/228P Dekretua). Haren edukia, zuri dagokizunez, hau da:

T. H.k, Boriñaur plazako 9, 4.a ezk. etxebizitzaren errentadunak, 2016ko ekainaren 28an aurkeztutako idazkiaren bidez, udalari jakinarazi Mohamed Boubacar Mohamed eta Mint Wehbin Mohamed udalaren biztanle erroldan arauz kanpo erroldatuta daudela, ez baitira aipatutako etxean bizi eta, hortaz, ez dituzte betetzen Biztanle eta Lurralde Mugen Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Udaltzainek egindako txostena ikusita, ondorioztatzen da pertsona horiek ez direla etxe horretan bizi.

Bat etorritz Arautegi horren 72. artikuluekin eta Estatistikako Institutu Nazionalaren lehendakariak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin eman zuten Ebazpenarekin, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal erroldaren kudeaketari buruz, eta bat etorritz zehazki arauz kanpoko inskripzioen bajei buruzko idatz zatiarekin eta aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, legez esleituak dituen ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko behean zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZEN-ABIZENAK	AGIRIA
Mohamed Boubacar Mohamed	Y-0826107-F
Mint Wehbin Mohamed	BC7086220

Bigarrena. Ebazpen hau eragindakoei jakinaraztea udalerrri honetan izan duten azken helbide ezagunean, hamabost egun igaro baino lehen egoki deritzeten alegazioak eta agiri eta frogagiriak aurkez ditzaten, udalaren biztanle erroldan zuzen inskribatuta daudela egiaztatzeko, edo erroldako egoera erregulariza dezaten, udalari etxe aldaketaren berri emanez edo egungo etxea zein herritan duten adieraziz.

Alkateak agindu eta izenpetzen du, Amurrión, 2016ko abuztuaren 17an. Halabeharrezko idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.

Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrión, 2016ko irailaren 7a

Alkate lehendakaria

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA